

Session 2011

**CONCOURS SPECIAL (EXTERNE ET INTERNE)
DE RECRUTEMENT
DE PROFESSEURS DES ECOLES**

« Concours spécial »

BASQUE

Epreuve Orale

Durée de la préparation : 30 minutes

Durée de l'entretien : 30 minutes

Coefficient : 2

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique est rigoureusement interdit.

[...] Harri metatuz osatu jargian pausatu zen. Akitua. Pairatzen zuen bakardadea deitoratzen. Otsabidetik partitu eta Utah ustel honetara etortzea erabaki zuen eguna madarikatzen. Colorado Grand-Junction hirian kokatua zeukan John osabak, sei urte zuela gonbidatu zuen, arraiki :

- Haugi enekin Ameriketara
- Zertara ?
- Artzain lan ona atzemanen deat eta aberastuko haiz.

Ez bat ez bi, biloak hazkatzeko astirik gabe osabari baiezkua eman zion. Hilabete batzuk geroago, airekotik jaitsi zen New Yorken, txapela kaskoan eta puskilaz bete zaku txikia ahurrean. Eta hor bushean, sugearekiko heriotzarainoko borrokaren ondotik, lehen aldiz usnatu Ameriketako airearen usainaren nostalgiak izpiritua larrantzi zion : hezea, karatsa, bultzakorra. Abiadura handian diruz okituko zen, herrira itzuliko gero, eta Maritxu dendari gaztearekin ezkondurik, aitatxiren etxalde abandonatuan laborantzan plantatuko.

Dolar nahikoa sakelaratzeko hiru sasoi zilegitu zizkion bere buruari, baina jada seigarrena zazpigarrenera ari zen eta herriratzeaz etsitzen zihoan. Pierraren ordezkideek jada, euskaldunek barne, Peter deitzen zuten : Peter handik, Peter hemendik, hainbeste John, Jack eta Frankieren artean. Artzain-multzoak bereber eta barnekoi funtzionatzen zuen, nahiz artzain guztiak ez ziren mende laurden bat aitzinagokoak nola, denak Euskal Herritik etortzen : txinakoak, indioak eta Europa ekialdekoak baziren. Halaz Peter Frankierekin bazezilen, Pablo eta Jerzyrekin ere bai.

1963ko azaroaren 22ko eguerdi hastapen hartan Los Angelesko Desert Inn ostatuan zegoen, Mike Emerson polizia lagunarekin, kafea hurrupatzen. Alabaina, zazpi urteren buruan, artaldea saldu eta osaba okituari agur erran zion. Dineh Jones navajo artzain kide baten autoan sarturik bideratu zen Las Vegasera. Nevadako hiri handiko Greatest kasinoan bizpahiru hilabete eman zituen atezain lanetan, mafiaren manu eta mehatxupeko beharra utzi zuen arte, hain zuzen. Irabazitako zent guztiak emazteetan gastatzen zituen : Marika polones pulposa, azpiak erraz irekitzen zituen Klotzie eskoziarra eta apainketarako molde arras bereziekiko Monikaren konpainian, hau amerikarra zen jatorriz eta larrua diru eta errauts trukean saltzen zuen. [...]

BORDA, Itxaro, *Zeruetako erresuma*, 2005.

Session 2011

**CONCOURS SPECIAL (EXTERNE ET INTERNE)
DE RECRUTEMENT
DE PROFESSEURS DES ECOLES**

« Concours spécial »

BASQUE

Epreuve Orale

Durée de la préparation : 30 minutes

Durée de l'entretien : 30 minutes

Coefficient : 2

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique est rigoureusement interdit.

PROFESIONALAK ETA AMATEURRAK

Oier Araolaza (dantzaria)

2010eko abuztuaren 1eko **Argia** aldizkaria – “Iritziaren leihoa” saila

Kultura alorrean, eta zer esanik ez dantzan, profesionalak behar ditugu. Iruditzen zait profesional gutxi izatea dela gure gabezia, arazo eta ezintasun askoren arrazoietakoa bat. Gaur eta hemen, dantza jarduera gehienak adibidez, ohiko lanaren ondoren, irakaskuntzan, enpresan edo kudeaketan zortzi ordu lan egin ondoren egiten dira.

- 5 Azken urteotan administrazioa profesionalizazioaren aldeko politikak bultzatzen ari da. Kultura alorreko laguntza eta jardueretan amateurrek parte hartzeko gero eta traba gehiago jartzen ditu. Burokrazia izugarria da, eta diru-laguntzen deialdietan parte hartzea ia ezinezkoa bihurtu da horretarako azpiegitura profesionala ez duenarentzat. Are gehiago, zenbait deialditan zehatz-mehatz adierazten da
- 10 profesionalak bakarrik aurkeztu daitezkeela. Profesional izatea nolabaiteko berme artistikoa balitz bezala. Eta amateurrek ekoizpen artistiko interesgarriak egiteko izan dezaketen gaitasuna ukatuz.

- Krisi aurretik kultura eta sorkuntza alorretako profesionalizazioaren aldeko aldarri hau izugarritzko kontraesana zen, eta zer esanik ez oraingo egoeran. Errealitateak
- 15 urteak daramatza gure mutur aurrean jartzen herri txiki honetan ez dagoela nahikoa masa kritiko jarduera kultural gehienetan profesionalki aritzeko. Baina itsu eta entzungor, profesionalizazioa eskatu eta amateurismoa zigortzen jarraitzen dugu. Eta zentzu batean profesional kopuruak gora egin du. Jarduera artistiko gehien inguruan badira profesionalki ari diren teknikariak, kudeatzaileak, idazkariak,
- 20 ekoizleak, komunikariak, eta abar. Artistak eta sortzaileak ez proportzio berean. Profesionala izateak ez du kultur produktuaren kalitatea eta ekarpenaren mamia bermatzen. Are gehiago, ezagutzen ditugu artista profesionalak, artea ogibide hartu dutenetik ez dutenak aurreko mailarik eman. Amateur zirenean zerbait esateko zutenean ateratzen ziren plazara, ongi mamitu eta landu ondoren, ez baitzuten
- 25 produktu kulturala ekonomikoki errentabilizatzeko asmorik eta itxaropenik. Bizimodua atera beharrak entengabe ekoiztu eta plaza publikoan egotera eramaten du profesionala, esateko ezer berririk izan ala ez.

- Hasieran esan dut eta berriz errepikatuko dut. Kultura alorrean profesionalak behar ditugu. Baina amateurrek ere bai. Ez dugu erronka makala bien arteko elkarbizitza
- 30 eta lankidetzak orekatua lortzen. Baina ez dezagun inor zigortu bata ala bestea izateagatik.